

Egoitzako ziurtagiriak eta SSL/TLS zerbitzari segurua

Izenperen ziurtagirien gida



SSL

Zer ziurtagiri aukeratu?

Zerbitzari seguruko hainbat ziurtagiri mota daude, beharraren eta behar den segurtasun-mailaren arabera.

Administrazio publikoen kasuan, gainera, egoitza elektronikorako ziurtagiri espezifiko bat hautatzeko aukera dago.

SSLren eta egoitza elektronikoaren abantailak

- Zure webgunea **berme handienekin** segurtatzen dute.
- Erantzukizun zibileko aseguru baten babesa dute.
- **SHA-2 eta 2048 bits** algoritmoekin sinatuta daude.
- Maila handieneko estandar kriptografikoak eta CABForum-en eskakizunak betetzen dituzte.
- **Nabigatzaile eta sistema eragile** garrantzitsuenek ezagutzen dituzte.
- **Posizionamendua hobetzen dute** Googleko bilaketetan (posizionamendu altuagoa eskaintzen die SSLrekin segurtatuta dauden guneei).
- Googlek eskatzen duen **gardentasun-egiaztapenarekin** jaulkitzen dira.
- Bizirik, ezeztatuta eta iraungita dauden ziurtagiriak **kudeatzeko tresna**.

SSL ziurtagiri motak



DOMEINUKO SSL DV ZIURTAGIRIA

- Balidazio azkarra eta erraza
- Domeinua bakarrik egiaztatzen da
- Gehienez bi izen alternatibo oinarrizko prezioan
- Wildcard sartzeko aukera ematen du



ERAKUNDEKO SSL OV ZIURTAGIRIA

- Domeinua eta erakundea egiaztatzen dira
- Gehienez bi izen alternatibo oinarrizko prezioan
- Wildcard sartzeko aukera ematen du



SSL ZIURTAGIRI KUALIFIKATUA

- 910/2014 Europako Erregelamenduaren (eIDAS) arabera kualifikatua
- Gehienez bi izen alternatibo oinarrizko prezioan



EGOITZAKO ZIURTAGIRI KUALIFIKATUA

- 910/2014 Europako Erregelamenduaren (eIDAS) arabera kualifikatua
- Ministerioaren irizpideen arabeko profila
- Administrazio publikoena bakarrik
- Egoitza elektronikoak aldizkari ofizialean argitaratuta egon behar du

Behar diren profilak



ORDEZKARIA/BEZEROA

DOMEINUAREN TITULAR den erakundearen alta sinatuko du eta pertsona baimendunen gaikuntza baimenduko du.

Pertsona baimendunen aldaketek ordezkariak sinatutako eskaera berri bat dakarte.

Ziurtagiri kualifikatuen eskaera guztiak sinatu beharko ditu.

Indarrean dagoen **Izenpe ziurtagiri kualifikatua edo NAN elektronikoa** erabili behar du.



Sarbidea ziurtagiriarekin



Bezerearen alta/aldaketa

PERTSONA BAIMENDUNAK

SSL erakunde baten izenean kudeatzeko baimena dutenak. Ez da beharrezkoa erakunde titularreko kideak izatea.

Guztiek ikusiko dituzte baimenduta dauden erakunde guztien ziurtagiri guztiekin lotutako ekintzak.

TSLan onartutako edozein ziurtagiri kualifikatu erabil dezakete.

Alta eta baimena: Aplikazioa erabiltzeko betekizunak



Aplikaziorako sarrera:

<https://servicios.izenpe.com/partners/inicio.do>

Alta

- Aplikazioko alta-eskaera edonork egin dezake; ez da beharrezkoa erakunde titularreko kidea izatea.



- Sortutako eskabidea (PDF) erakundearen ahala/autoritatea duen pertsonak sinatu beharko du (adibidez, alkateak). Ziurtagiriak kudeatzeko baimena ematen zaien pertsonak hartuko ditu barnean.
- Izenpek eskabide-dokumentua egiaztatu eta gaikuntzaren berri emango du, pertsona baimendunek tramitatzen hasteko aukera izan dezaten.

Pertsona baimendunak

- Izenperen identifikazio elektronikorako bitarteko profesional edo pertsonal batekin (BakQ, herritarra, korporatiboa...) edo NAN elektronikoarekin sartuko dira aplikazioan.
- Erakundekoak izan daitezke edo ez, ordezkariaren erabakia da hori.
- Pertsona berak hainbat erakundetarako baimena izan dezake.

Helbide elektroniko honetan jasoko dira DV edo OV ziurtagirien eskabideei buruzko jakinarazpen guztiak.

Datu nominalek alta egingo zaion ordezkariaren sinadurarekin bat etorri behar dute. Kontuan izan behar duzu ordezkariak erakunde baitako figura izan behar duela eta SSL ziurtagiriak eskatzeko edo kudeaketa eskuordetzeko behar adina ahalorde izan behar duela. **Argi ez baduzu, Izenperek kontsultatzea komeni da.** Telefonoa: ordezkariaren kontakua; intzidentziak kudeatzeko bakarrik jasotzen da. Emaila: posta-helbide honetara **iritsiko dira kualifikatutako ziurtagirien eskaeren egiaztapenak** - egiaztapenerako esteka duen emaila (SSL kualifikatuak eta EGOITZA kualifikatuak). Ordezkariak sinatu beharko ditu egiaztapen horiek. Edozein helbide jarri ahal izango duzue, baina **eskaeren egiaztapenak ordezkariak bakarrik egin ahal izango ditu sinadura digitalaren bidez eta Idazki desktop osagarriarekin. Kualifikatutako eskaerak sinatzeko onartutako ziurtagiriak: NAN elektronikoa, Izenpe.** SSL kualifikatuaren eta egoitza kualifikatuaren eskaerak sinatzeko erabilitako ziurtagiriak bi eskakizun bete behar ditu:

1. Izenpeko ziurtagiri kualifikatua edo NAN elektronikoa da.
2. Igortzeko, aurrez aurreko Identifikazioa egin da.

Gezuraren erabilera

Nahizazko datuak bete behar dira (* beteekin markatutakoak)

Erakundearen datuak

Erakundearen IFK*

Erakundearen izen ofiziala*

Erakundearen izen komertziala

Kalea:* Zenbakia: Solairua: Atea:

Herrialdea: Probintzia:* Herria:* Posta Kodea:*

Emaila jakinarazpenak (DV, OV)*

Ordezkariaren harreran datuak

Izena:* Lehen Abizena:* Bigarren Abizena:*

NAN:* Ordezkaria kargua:* Telefonoa:*

Email:*

Faktura-zerbitzuak

Bezeroaren datuak kopiatu

Kalea: Zenbakia: Solairua: Atea:


Herrialdea: Probintzia: Herria: Posta Kodea:

Terminoak eta baldintzak

Kontratu izenpetzailearen erreferentzia

Berriro bidaltzeko aukerak

Erakunde IFK: hizki larriak, tarterik gabe.
Erakundearen izen ofiziala: IFKri lotutako datu-basetik berreskuratzen da.
Posta-helbidea: erakunde/egoitzak posta-helbideak izan behar du.



Bezero-erakunde horretarako pertsona baimendunak gehitzeko aukera ematen du. Ordezkariak SSL eskaerak kudeatzeko baimena emango dien eskatzaileak gehituko ditugu. Ordezkaria, besterik zehaztu ezean, baimenduta dago. Eskatzaileak JSON formatua duen testu-fitxategi bidez karga daitezke, informazioko tip edo gomendioan ikus daitekeen moduan.

Inprimatu eskaera: Formularioa betetakoan, eskaera inprimatzen da.

Eskaeraren informazioa jasota egongo den PDF dokumentua jaso behar da. Dena ondo dagoela egiaztatutakoan, ordezkariari bidal diezaiokegu sina dezan. PDFa deskargatutakoan, aplikaziotik aterako gara “Bezeroaren Alta/Aldaketa” aukeran klik eginda.

Bezeroaren Alta/Aldaketa: Formularioan sartutako aldaketak gordetzen ditu.

Ezetzatu: Sartu eta gorde ez diren aldaketak ezabatzen ditu.

Sinatutako Eskaera Kargatzea


Ordezkariak sinatutako bezeroaren alta-inprimakia eskuragarri dugunean, berriro ere aplikazioan sartuko gara “Bezeroaren Alta/Aldaketa” bidez. Orrialdearen amaieran, “Igo Sinatutako Eskaera” menua izango dugu aktibo:

Sinatutako eskaera igoko dugu “Bezeroaren Alta/Aldaketa” aukeran klik eginda:

Eta altaren onespenerari dagokion jakinarazpena jaso arte zain egongo gara. Gehienetan, 1-3 egun artean.


Uko eginez gero, operaciones@izenpe.es helbidean jar zaitezke harremanetan arazoia ezagutzeko.

Jaulkitze-zikloa: SSL DV eta OV




Eskatzaile baimendun bakoitzari posta elektronikokoaren bidez jakinarazten zaio (jakinarazteko helbide elektronikoa) ziurtagiriak eskatzeko eta jaulkitzeko prozesuan egindako urrats bakoitza.

Jaulkitze-zikloa: SSL kualifikatuak



Arduradun teknikoari posta elektronikoaren bidez jakinarazten zaio (jakinarazteko helbide elektronikoa) ziurtagiriak eskatzeko eta jaulkitzeko prozesuan egindako urrats bakoitza.

Jaulkitze-zikloa: Egoitza kualifikatuak



Eskatzaile baimendun guztiei posta elektronikoaren bidez jakinarazten zaie ziurtagiriak eskatzeko eta jaulkitzeko prozesuan egindako urrats bakoitza.

Fitxa bakoitzak aukera ematen du ziurtagiriak egoeraren arabera kudeatzeko:

- **Bezeroaren datuak:** harremanetarako eta fakturaziorako datuak aldatzeko.
 - **Jaulkitzeko dauden** ziurtagirien kudeaketa: eskabide berriak egiteko edo tramitatzen ari direnak osatzeko.
 - **Jaulkitako** ziurtagirien kudeaketa
 - **Iraungitako** ziurtagirien kudeaketa
 - **Ezeztatutako** ziurtagirien kudeaketa
- } Ziurtagiriaren bizi-zikloa

WEB GUNEAREN ZIURTAGIRIEN KUDEAKETA

WEB GUNEAREN ZIURTAGIRIEN KUDEAKETA				
<div style="display: flex; justify-content: space-between; border-bottom: 1px solid #ccc; padding-bottom: 5px;"> Bezeroaren datuak Egiteke dauden Ziurtagirien kudeaketa Emandako Ziurtagirien kudeaketa Iraungitako Ziurtagirien kudeaketa Ezeztatutako ziurtagirien kudeaketa </div>				
<p>Nahitaezko datuak bete behar dira (* batekin markatutakoak)</p>				
<p>Erakundearen datuak</p>				
Erakundearen IFK:	C99395279	Erakundearen izen ofiziala:	AYTO DE MASSACHUSSETS	Erakundearen izen komertziala: MASSACHUSS
Kalea:	HIGH ROAD	Zenbakia:	5	Solairua: 2
Herrialdea:	PROBINTZIA: COLORADO	Herria:	DENVER	Atea:
Posta Kodea:	54587			
Emaila jakinarazpenak (DV, OV)	seroscar2@gmail.com			

Ziurtagiri bat eskatzea

“Jaulkitzeko dauden ziurtagirien kudeaketa” fitxan “Ziurtagiri berriaren eskabidea” hautatzean, erakundearen eta eskatzailearen datuak partzialki beteta izango dituen formularioa zabalduko da. Egoitzako ziurtagirietan, gainera, egoitza zein arautan argitaratuta dagoen adierazi beharko dugu.

Lehenik ziurtagiri mota hautatu behar dugu:

Bezeroaren datuak **Egiteke dauden Ziurtagirien kudeaketa** Emandako Ziurtagirien kudeaketa Iraungitako Ziurtagirien kudeaketa Ezeztatutako ziurtagirien kudeaketa

Nahitaezko datuak bete behar dira (* batekin markatutakoak)

Eskaera ziurtagiri berria

Ziurtagiri mota

Ziurtagiri Mota:* - Ziurtagiriaren igorpena: 395 egun Ziurtagiriaren Prezioa: -

Ziurtagiri bat eskatzea

Formularioaren amaieran domeinuaren datuak osatuko ditugu eta titulartasuna egiaztatzeko modua hautatu beharko dugu, baita ziurtagiriaren eskabide tekniko — CSR— erantsi ere.

Mezu elektronikoa bat bidaliko da eskaera balidatzeko: DV eta OV ziurtagiriaren kasuan baimendunari, eta ziurtagiri KUALIFIKATUEN kasuan erakundearen ordezkariari.

The screenshot shows a web form for applying for an SSL certificate. The form is titled "Ziurtagiriaren datuak" (Certificate data) and contains the following fields and controls:

- Domeinua:*** (Domain): A text input field.
- Izen alternatiboa 1:** (Alternative name 1): A text input field.
- Izen alternatiboa 2:** (Alternative name 2): A text input field.
- Izen alternatiboa 3:** (Alternative name 3): A text input field.
- Titulartasun lehenetsia egiaztatzeko modua:*** (Preferred validation method): A dropdown menu with a downward arrow.
- Gainontzeko SAN-ak** (Additional SANs): A section containing:
 - A text input field for "Gainontzeko SAN-ak".
 - A button labeled "Seleccionar archivo" (Select file).
 - A button labeled "No se eligió archivo" (No file selected).
 - An information icon (i).
 - Plus (+) and minus (-) buttons for adding or removing SANs.
 - A scrollable list area for the selected SANs.

At the bottom of the form, there are two buttons: "Eskatu" (Request) and "Ezetzatu" (Cancel).

Domeinuaren titulartasuna egiaztatzeko moduak

Nahi den modua hauta daiteke

DNS ALDAKETA

Izenpek mezu elektroniko bat bidaltzen du ausazko balio batekin, eta eskatzaileak domeinuaren DNSan TXT erregistro bat gehitzeko erabili behar du. Eskatzaileak mezu elektronikoaren jarraibideak bete behar ditu.

WEBGUNEA

Izenpek mezu elektroniko bat bidaltzen du fitxategi batekin, eta eskatzaileak dominio/.well-known/pki-validation/ bide-izenean argitaratu behar du. Eskatzaileak mezu elektronikoaren jarraibideak bete behar ditu.

WHOIS

Izenpek mezu elektroniko bat bidaltzen du ausazko balio batekin, WHOIS kontaktuan (Registrant, administraria edo teknikaria) agertzen den helbidera. Kontaktuak mezu elektronikoaren jarraibideak bete behar ditu. .Eus domeinuen kasuan bakarrik da erabilgarria metodoa.

Eskaera baten egoerak eta ekintzak

“Jaulki gabe” egoera mantenduko da 4 markak (*flag*) OK izan arte.

Gainera, marken egoeraren arabera, eskaera kudeatzeko hainbat ekintza gauzatu ahal izango da.

Egoerak / Markak	Ekintzak
Ordezkarria berrestea	Kontsulta: eskaera-formularioa zabaltzen du.
Domeinuaren titulartasuna egiaztatzea	PDF deskarga: eskaera-formularioa deskargatzen du.
CSR igota	Editatu: oraindik tramitatu EZ den eskaera batean aldaketak egiteko aukera ematen du.
Izenpek igortzea	Ziurtagiria deskargatu

Ziurtagiri baten egoerak

Ziurtagiri bat jaulki ondoren, haren bizi-zikloaren egoerak eta horietako bakoitzean egin daitezkeen ekintzak honako hauek dira:

Egoerak / Markak	Ekintzak
Jaulkita	Deskargatu
Bizirik	Berritu
Iraungita	Ezeztatu
Ezeztatuta	

Erakunde anitzeko baimendunak

Hainbat erakunde profil beretik kudeatzea

Pertsona baimendun berak hainbat erakunderen ziurtagiriak kudeatzen dituzenean, zein bezeroren ziurtagiriak kudeatu nahi dituen hautatu beharko du autentifikatzen denean.



Mila esker

Gracias

www.izenpe.eus